

## BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

### 2819

*AGINDUA, 2017ko maiatzaren 23koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, goi-mailako kirolariak eta teknikariak deklaratzeko dena.*

Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuak 4.2 artikuluan xedatzen duenez, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuak, Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamenez, goi-mailako kirolariaren izaera emango die euren kirol-modalitate eta -diziplinan munduko edo Europako onenen artean daudenei, betiere dekretuan bertan eta haren I. eranskinean ezarritako hautaketa-irizpideekin bat etorritz, eta Dekretuaren hurrengo artikuluetan ezartzen diren baldintzak betetzen badituzte.

Dekretuaren 6.2 eta 7.2 artikuluen arabera, bestalde, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuak, Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamenez, goi-mailako teknikariaren izaera emango dio dekretuan bertan ezarritakoaren arabera goi-mailako kirolari deklaratu den pertsona baten edo gehiagoren arduradun tekniko nagusiaren eginkizuna betetzen duenari, eta goi mailako epaileen izaera honako hauei emango die: nazioarteko kirol-lehiaketetan maila horretan aritu eta kirol-modalitate bakoitzaren nazioarteko federazioaren organoek egindako zerrendetan nazioarteko epaile-aitorpena jaso dutenei.

Goi-mailako kirolari, teknikari eta epaileen deklarazioak lehen aipaturiko dekretuaren artikuluetan ezartzen diren ondorioak izango ditu, eta haren indarraldia, oro har, lau urtekoa izango da, dekretuan finkatzen den eran.

Aurkeztu diren eskabide guztiak banan-banan aztertu eta baloratu ondoren, Balorazio Batzordeak 2017ko maiatzaren 17an egindako bilkuran, bidezko proposamena egin zuen.

Ondorioz, hauxe

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamena ikusita, I, eranskinean aipatzen direnak deklaratzeko goi-mailako kirolari eta teknikari, Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako ondorioekin.

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denean jarriko da indarrean deklarazioa.

Hirugarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epearen barruan, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Laugarrena.– Argitara bedi Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, jende guztiak honen berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko maiatzaren 23a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,  
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.

2017ko ekainaren 7a, asteazkena

## I. ERANSKINA

## GOI-MAILAKO ESKAERA ONARTUAK

Izen-abizenak	Espediente zk.	Modalitatea	Kategoria
Agirre Kamio, Naroa	434/15/D	Atletismoa	Kirolaria
Auzmendi Alejandro, Eneko	435/15/D	Piraguismoa	Kirolaria
Barrutieta Barrenetxea, Uribarri	438/15/D	Errugbia	Kirolaria
Canales Bilbao, Leticia	441/15/D	Surfa	Kirolaria
Carrera Vazquez, Pablo	418/15/D	Tiro Olinpikoa	Kirolaria
Erbina Araña, Amaia	439/15/D	Errugbia	Kirolaria
Fernandez de Corres Del Río, Ane	440/15/D	Errugbia	Kirolaria
Frades Larralde, Gurutze	429/15/D	Triatloia	Kirolaria
Garcia Vez, Gontzal	422/15/D	Curling	Kirolaria
Gebre Aundon, Trihas	419/15/D	Atletismoa	Kirolaria
Martin Goenaga, Ignacio Amadeo	423/15/D	Errugbia	Kirolaria
Martinez Gutierrez, Mikel	437/15/D	Atletismoa	Kirolaria
Martinez Yeregui, Mikel	427/15/D	Eskubaloia	Kirolaria
Mateo Uriarte, Rakel	430/15/D	Triatloia	Kirolaria
Murua Zubizarreta, Ainhoa	436/15/D	Triatloia	Kirolaria
Odriozola Yeregui, Kauldi	426/15/D	Eskubaloia	Kirolaria
Rodriguez Goitia, Iñigo	431/15/D	Atletismoa	Kirolaria
Torrico Egaña, Ander	424/15/D	Eskubaloia	Kirolaria
Zabala Dominguez, Olatz	420/15/D	Piraguismoa	Kirolaria
Fernandez Aizpuru, Aritz	68/15/T	Piraguismoa	Teknikaria
Jimenez Mangas, Ricardo	67/15/T	Atletismoa	Teknikaria
Merino Ruiz, Alvaro	69/15/T	Atletismoa	Teknikaria
Mujika Anton, Iñigo	66/15/T	Triatloia	Teknikaria
Otaegi Garmendia, Oihane	71/15/T	Curling	Teknikaria
Taberna Otaño, Javier	65/15/T	Piraguismoa	Teknikaria
Martinez Barredo, Ivan	11/15/J	Tenisa	Epailea